**I. eranskina / Anexo I**

**EUSKARABIDEAREN ETA SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (SLK) ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2024. URTEAN IKERKETA ETA DIBULGAZIO SOZIOLINGUISTIKORAKO**

**1. Xedea**

Dokumentu honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Soziolinguistika Klusterra elkartearen arteko hitzarmenaren oinarri orokorrak ezartzea, 2024. urtean ikerketa eta dibulgazio soziolinguistikorako.

**2. Zioen azalpena**

Bi erakundeek azaltzen dute:

1.- Soziolinguistika Klusterra elkartearen jomugek eta haren askotariko proiektu eta jarduerek dituzten xedeek helburuak partekatzen dituztela Euskarabideak azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren bidez esleituta dituen eginkizunekin.

2.- Interes publikoko xedea dela esparru soziolinguistikoan gehiago sakontzea. Horretarako, euskararen egoera sistematikoki ebaluatu behar da Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren bilakaera diakronikoki ezagutzeko behar diren datu demolinguistiko eguneratuak lortzeko.

3.- Neurketetan eta ikerlanetan lortutako datuak erabiltzen direla errealitate soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika egiteko, eta politika hori herritar guztiei zuzentzen zaiela.

Era berean, datuak erabiltzen dira Euskararen Adierazle Sistema elikatzeko, eta toki entitateek, gizarte-eragileek eta herritarrek, oro har, Euskarabideari egiten dizkioten informazio eskariei erantzuteko.

4.- Soziolinguistika Klusterra irabazi-asmorik gabeko elkartea dela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen eskari-eskaintzako bitartekaritzako eragile moduan onartua. Soziolinguistika Klusterraren

**CONVENIO DE EUSKARABIDEA CON LA ASOCIACIÓN SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (SLK) PARA LA INVESTIGACIÓN Y DIVULGACIÓN SOCIOLÍNGÜÍSTICA EN NAVARRA EN EL AÑO 2024**

**1. Objeto**

El presente documento tiene por objeto establecer las bases generales del Convenio entre Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y la asociación Soziolinguistika Klusterra, para la investigación y divulgación sociolingüística en Navarra en el 2024.

**2. Exposición de motivos**

Ambas entidades exponen:

1.- Que los objetivos de la asociación Soziolinguistika Klusterra y las finalidades que persiguen sus diferentes proyectos y actividades comparten objetivos con las funciones asignadas a Euskarabidea por el Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre.

2.- Que es objeto de interés público conseguir una mayor profundización en el ámbito sociolingüístico evaluando sistemáticamente la situación del euskera para la obtención de datos demolingüísticos actualizados que permitan conocer de forma diacrónica la evolución de la realidad sociolingüística de Navarra.

3.- Que los datos obtenidos en las mediciones e investigaciones son utilizados para el diseño de una política lingüística ajustada a la realidad sociolingüística y dirigida al conjunto de la población.

Asimismo, los datos son utilizados para alimentar el Sistema de Indicadores del Euskera y para satisfacer las demandas de información dirigidas a Euskarabidea por parte de las entidades locales, agentes sociales y ciudanía en general.

4.- Que Soziolinguistika Klusterra es una asociación sin ánimo de lucro reconocida como agente de intermediación oferta-demanda de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. La identidad y naturaleza de Soziolinguistika Klusterra y la actividad

nortasunak eta izaerak eta azken 18 urtean egindako lanak elkarteari berezitasun bakarra ematen diote eta, orobat, erreferente bilakatzen ikerketa soziolinguistikoan eta euskara berreskuratu eta normalizatzeko proiektuen aplikazioan.

desarrollada a lo largo de 18 años de recorrido dotan a la asociación de una singularidad única y la convierten en un referente de la investigación en el ámbito sociolingüístico y en la aplicación de proyectos para la recuperación y normalización del euskera.

5.- Bi aldeek ezagutu eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen lege-esparrua, zeinak bi aldeak gaitzen baititu hitzarmen hau sinatu eta harekiko osagarria den edozein ekimen garatzeko.

5.- Que ambas partes conocen y aprueban el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que habilita a ambas partes para suscribir el presente convenio y desarrollar cualquier iniciativa complementaria al mismo.

**3. Indarreko araudia**

A) 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

B) 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa.

C) 240/2023 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena. Aipatu erakundearen eskumenak eta eginkizunak mugatzen ditu.

**3. Normativa vigente**

A) Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

B) La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera.

C) El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autónomo Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, que delimita las competencias y funciones del citado organismo.

**4. Hitzarmenaren iraupena**

Hitzarmen honek indarra izanen du sinatzen denetik hasita 2024ko azaroaren 20ra arte.

Diruz lagunduko diren gastuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko azaroaren 10era bitartean sortu eta fakturatutakoak izanen dira, eta justifikatzeko epea bukatu baino lehen (azaroaren 20a) ordaindutakoak.

Aldeetako edozeinek egin diezaioke aurka hitzarmen honi, hura iraungi aurreko hiru hilabeteko epean.

**4. Duración del convenio**

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 20 de noviembre de 2024.

Serán gastos subvencionables los generados y facturados entre el 1 de enero y el 10 de noviembre de 2024, y satisfechos antes de la finalización del periodo de justificación (20 de noviembre).

El presente Convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la fecha de su vencimiento.

**5. Hitzarmenaren aurrekontua**

2024. urterako aurrekontua 25.000 eurokoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2024ko Aurrekontu Orokorretan "Hitzarmena Soziolinguistika Klusterra elkartearekin, ikerketa eta dibulgazio soziolinguistikorako" izeneko B30002 B3200 4819 334109 aurrekontu-partidaren kargura.

**5. Presupuesto del Convenio**

El presupuesto para 2024 será de 25.000 euros, con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334109 denominada “Convenio con asociación Soziolinguistika Klusterra para la investigación y divulgación sociolingüística en Navarra” de los Presupuestos Generales del Gobierno de Navarra para 2024.

**6. Jarduera diruz lagunduak**

Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ditu Soziolinguistika Klusterra elkarteak 2024. urtean eginen dituen lan hauek, hitzarmen honen II. eranskinean xehakatzen diren aurrekontuen arabera:

**6. Actividades a subvencionar**

El Gobierno de Navarra subvencionará los siguientes trabajos a desarrollar por Soziolinguistika Klusterra durante el año 2024, de acuerdo con los presupuestos que se detallan en el anexo II del presente convenio:

**6.1 ALDAHITZ ikerketa proiektua**

**a)** Eusle eta Ulerrizketa metodologiak. Materialak eta irizpideak

Proiektuko bi metodologia horien esperientziak lokalizatzeko, proposatzeko, eta abar, Aldahitz-eko Ikerketa Taldean bi metodologia horien materialak eta irizpideak prestatuko dira. Modu horretan, bi metodologia hauekin esperientziak antolatzeko talde edo/eta aukera egokiak identifikatu eta hautatu ahalko dituzte Garapen Taldeko erakundeek.

**b)** Ulerrizketa metodologia. 2019 eta 2021 artean eginiko esperientziak. Analisiak eta ondorioak

Analisi hauen bitartez 2019 eta 2021 artean erakunde ezberdinetan eginiko esperientzia guztien datuak eta prozesuak aztertuko dira, datuen analisiak egin eta horien emaitzak eta ondorioak atera.

Datu, emaitza eta ondorio horiek argitalpen batean jasoko dira. Oinarri horrek, aukera emango du datozen urteetan *Ulerrizketa* metodologia garatzen eta hobetzen jarraitzeko.

**c)** Eusle metodologia. 2018 eta 2021 artean eginiko esperientziak. Analisiak eta ondorioak

*Eusle* metodologiarekin azken urteetan eginiko esperientzien gaineko analisiak

**6.1 ALDAHITZ proyecto de investigación**

**a)** Metodologías Eusle y Ulerrizketa. Materiales y criterios

Para localizar, proponer, etc., las experiencias de ambas metodologías del proyecto, se elaborarán en el Grupo de Investigación de Aldahitz los materiales y criterios de ambas metodologías. De esta forma, las entidades del Grupo de Desarrollo podrán identificar y seleccionar los grupos y/o opciones adecuadas para organizar experiencias con estas dos metodologías.

**b)** Metodología Ulerrizketa. Experiencias realizadas entre 2019 y 2021. Análisis y conclusiones

A través de estos análisis se analizarán los datos y procesos de todas las experiencias realizadas en las diferentes organizaciones entre 2019 y 2021, se realizarán análisis de datos y se extraerán resultados y conclusiones de los mismos.

Estos datos, resultados y conclusiones se recogerán en una publicación. Esta base permitirá seguir desarrollando y mejorando la metodología Ulerrizketa en los próximos años.

**c)** Metodología Eusle. Experiencias realizadas entre 2018 y 2021. Análisis y conclusiones

Finalizar los análisis de las experiencias realizadas en los últimos años con la

amaitzea eta horien ondorioak kaleratzea lehentasunezko lan-ildo bat izango da 2024an.

Esperientzia horiek guztiak 2018 eta 2021 artean egin ziren. Batzuetan ohiko *Eusle* metodologia aplikatu zen, eta beste batzuetan *Biko eusle* aldaera.

Datu, emaitza eta ondorio horiek argitalpen batean jasoko dira.

### 6.2. Euskara Kirolkide programa

Ikerketa-proiektu honek haurren eta gazteen aisialdiari eragin nahi dio. Horretarako, helduak dira jomugan, identifikatu nahi baitira zein urrats eman behar liratekeen helduen aldetik, euskaraz funtzionatzen duen edota euskaraz eroso aritzeko esparru bat eratzeko. Hala, kirol klubekin batera lankidetzan garatzen da oinarri antropologikodun ikerketa-proiektu hau.

Hiru fasetan gauzatzen da ikerketa-proiektua:

**a)** Lanketa teorikoa:

“D ereduko kirola” izeneko ikerketa-proiektuaren ondotik, kirol klubak euskararen babesgunetzat izendatzeari potentzialitate handia ikusi zaio. Ikerketa-proiektu honen helburu orokorra da, hain zuzen, “euskararen babesgune” izendapena definitzea.

2024. urtean zehar, hainbat ikerketa-mintegitan eta jardunalditan parte hartuko dugu, “Babesgunea” kontzeptuaren definizioan sakontzeko.

**b)** Kirol elkarteetan definizio teorikoa testatzen eta hizkuntza-errealitatean eragiteko tresna praktikoa aplikatzen

Fase honen helburua da “euskararen babesgune” kontzeptuaren definizio teorikoak kirol klubetara ekartzea. Horretarako, kirol klubetako eragile aktiboen iritziak eta bizipenak jasotzea ezinbestekoa da.

metodología Eusle y publicar sus conclusiones será una línea de trabajo prioritaria en 2024.

Todas estas experiencias se realizaron entre 2018 y 2021. Unas veces se aplicó la metodología tradicional Eusle y otras la variante Biko eusle.

Estos datos, resultados y conclusiones se recogerán en una publicación.

### 6.2. Programa Euskara Kirolkide

Con este proyecto de investigación se pretende incidir en el ocio infantil y juvenil. Para ello, el punto de mira son los adultos, ya que se trata de identificar qué pasos habría que dar por parte de los adultos para crear un marco que funcione en euskera y/o que les permita expresarse cómodamente en euskera. Así, este proyecto de investigación con base antropológica se desarrolla en colaboración con los clubes deportivos.

El proyecto de investigación se desarrolla en tres fases:

**a)** Trabajo teórico:

Tras el proyecto de investigación "Deporte modelo D", se ha visto una gran potencialidad en la designación de los clubes deportivos como puntos de apoyo al euskera. El objetivo general de este proyecto de investigación es definir la denominación de "Babesgunea" (espacios de confort lingüístico para las y los vascoparlantes).

A lo largo del año 2024 participaremos en diversos seminarios de investigación y jornadas para profundizar en la definición del concepto de "Babesgunea" (espacios de confort lingüístico para los y las vascoparlantes).

b) Testar la definición teórica en las asociaciones deportivas y aplicar la herramienta práctica para incidir en la realidad lingüística.

El objetivo de esta fase es trasladar a los clubes deportivos las definiciones teóricas del concepto de "euskararen babesgune" (espacios de confort lingüístico para las personas vascoparlantes). Para ello es imprescindible recoger las opiniones y

2024an zehar, Nafarroako kirol klub batekin abiatuko da lankidetza. Kirol klub horretako euskararen presentziari eragiteko asmoz abiatuko da lankidetza-prozesu hori. Hain justu, kirol klubeko hizkuntza-errealitateari eragiteko prozesu-prototipo bat aplikatuko da, aholkulari-talde baten laguntzaz.

Prozesu berbera aplikatuko da beste lurralde batzuetako beste hainbat kirol klubetan. Beraz, klubetako hizkuntza-errealitateari eragiteko gakoak identifikatuko dira, zuzendaritza-taldeei zuzendutako urrats praktikoetatik abiatuz.

**c) Zabalkundea**

Proiektua garatu ahala, emaitzen berri emateko, hainbat komunikazio-ekintza burutuko dira 2024an: albiste bat argitaratzea Soziolinguistika Klusterraren webgunean, www.euskarakirolkide.eus webgunearen gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak garatzea edota nazioarteko hizkuntza-eragileekin harremanak (Frisia edo Katalunia, esaterako).

**7. Dirulaguntzaren ordainketa**

25.000 euroko dirulaguntza epe bakarrean (2024ko abenduaren 31 baino lehenago) ordainduko da, behar diren gastuen ordainagiriak azaroaren 20rako aurkeztu ondoren. Nolanahi ere, ordaindu beharreko kopurua egindako gastuen benetako justifikazioaren araberakoa izanen da.

**8. Dirulaguntzaren justifikazioa**

Emandako dirulaguntzaren justifikazioa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat eginen da, ondokoetan ezartzen diren epeetan, honako dokumentu hauek aurkeztuz:

A) Langileen gastuak justifikatuko dira txosten batean, zeinetan zerrendatuko baitira SLK-ko langileek proiektuan egindako lanorduak, haien nominak, Gizarte Segurantzarako kotizazio-agiriak eta PFEZagatiko atxikipenak, baita ordainketen frogagiriak ere.

vivencias de los agentes activos de los clubes deportivos.

A lo largo de 2024 se pondrá en marcha la colaboración con un club deportivo navarro. Este proceso de colaboración se iniciará con la intención de incidir en la presencia del euskera en este club deportivo. En concreto, se aplicará un prototipo de proceso para incidir en la realidad lingüística del club deportivo, con la ayuda de un equipo de asesores.

El mismo proceso se aplicará a otros clubes deportivos de otros territorios. Por tanto, se identificarán las claves para incidir en la realidad lingüística de los clubes, partiendo de pasos prácticos dirigidos a los equipos directivos.

**c) Difusión**

A medida que se desarrolle el proyecto, para dar a conocer los resultados, se llevarán a cabo diversas acciones de comunicación en 2024: publicación de una noticia en la web del Cluster de Sociolingüística, desarrollo de versiones en castellano e inglés de www.euskarakirolkide.eus o contactos con agentes lingüísticos internacionales como Frisia o Cataluña.

**7. Pago de la subvención**

El abono de la subvención de 25.000 euros se realizará en un único plazo antes del 31 de diciembre de 2024, previa justificación de los gastos correspondientes para el 20 de noviembre. En todo caso, el importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada.

**8. Justificación de la subvención**

La justificación de la subvención concedida se realizará en los términos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, General de Subvenciones, en los plazos y mediante los documentos que a continuación se detallan:

A) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una memoria en la que se relacionen las horas dedicadas al proyecto por el personal de SLK, junto con las nóminas, los documentos de cotización a la

B) Langileria gastuak ez diren beste gastu zuzen batzuk justifikatzeko, gastu horien zerrenda eginen da eta haietako bakoitzaren zenbatekoa eta ordainketa-eguna ezarriko dira. Dokumentazio horri beharrezkotzat jotako fakturak eta ordainagiriak erantsiko zaizkio, baita ordainketen frogagiriak ere.

Fakturak eta gainerako agiriak zenbakituko dira modu korrelatiboan, eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira.

C) Era berean, diruz lagundutako proiektuak eta lanak bukatu ondoren, eta dirulaguntza kobratzea xedez, Soziolinguistika Klusterra elkarteak egindako guztiaren gaineko memoria aurkeztuko du Euskarabidean, betiere azaroaren 20rako (egun hori barne), ezarritako helburuak bete direla egiaztatzeko.

**9. Gardentasuna**

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3.c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. Horretarako Gardentasun agiria bete behar du (ikusi III. eranskina).

Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Erreferentziako urteko negozio-zifra edo aurrekontua honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra edo aurrekontu exekutatua.

Seguridad Social y las retenciones de IRPF, así como los justificantes de pago.

B) Para la justificación de otros gastos directos distintos de los gastos de personal, se relacionarán dichos gastos con los siguientes detalles para cada uno de ellos: importe y fecha de pago. Junto a dicha documentación se adjuntarán las facturas y justificantes que se consideren necesarios, así como los justificantes de pago.

Las facturas y demás documentos se numerarán correlativamente y se presentarán en el mismo orden en que figuren en la relación de gastos.

C) Asimismo, una vez finalizados los proyectos y trabajos subvencionados y a los efectos del cobro de la subvención, la asociación SLK presentará a Euskarabidea antes del 20 de noviembre (incluido) una memoria de todo lo realizado a fin de comprobar el cumplimiento de los objetivos establecidos.

**9. Transparencia**

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros, para lo cual deberán cumplimentar el documento de Declaración de Transparencia al que se accede a través del enlace del anexo III.

A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio o presupuesto anual de referencia, será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

b) Hala badagokio, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako aurrekontua edo negozio-zifra.

Bi gorabehera hauek batera dituzten onuradunek, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoan, Euskarabideari zuzenduta, jakinarazpena jaso edo, kasua bada, dirulaguntza eman izanaren ebazpena argitaratzeko egunetik hasita hilabeteko epean, modu telematikoan aurkeztu beharko dute ondoko dokumentazioa:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren erakundeen kasuan, informazioa haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan dagoena izanen da.

d) Kargudun bakoitzak gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen duen dedikazio mota.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu, aurreko ataleko inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

Onuradunek emandako informazioa Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren Gobernu Irekiko Atarian argitaratuko da eta eskura izanen da argitaratu eta urtebetean. Muga 15 hilabetekoa izanen da, informazioa kudeatzeko organoan sartzen den unetik hasita. Epe hori iraganik, informazioa argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du. Hala egin ezean, entitate onuradunak kentzeko eskatzen ahalko du, eta gehienez ere hilabeteko epean kendu beharko da, eskaera egiten denetik hasita.

a) La cifra de negocio o presupuesto ejecutado del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio o presupuesto aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Las entidades beneficiarias en las que concurran estas dos circunstancias, deberán presentar de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, en el plazo de un mes contado desde la notificación o, en su caso, fecha de publicación de la resolución de concesión de la subvención, la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será de las que figuren en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección, de cada uno de sus cargos.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

En el caso de que la entidad no esté sujeta a la obligación de transparencia al no concurrir las circunstancias descritas en el apartado anterior, deberá presentarse una declaración en tal sentido.

La información facilitada por las entidades beneficiarias será publicada en el Portal de Gobierno Abierto de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y será accesible durante 1 año desde su publicación, con el límite de 15 meses desde su entrada en el órgano gestor de la información. Transcurrido dicho plazo, la unidad responsable de su publicación la retirará de oficio, y si no lo hiciera, la entidad beneficiaria podrá solicitar su retirada, que

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira.

Onuradunak informazioa emateko betebeharrak ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak galarazi gabe, haiek bete ezean, onartutako dirulaguntza ordaindu gabe utziko da, eta, zenbatekorik kobratu bada, itzuli egin beharko da, eta aurrerakinak ere bai, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**10. Dirulaguntzak itzultzea eta zehapen-prozedura**

Dirulaguntzen jarraipenari, itzultzeari eta zehapen prozedurari dagokionez, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoari jarraituko zaio, zehazki ondokoetan ezarritakoari:

II. tituluan, Dirulaguntzak itzultzea, I. kapituluan, Itzulketa, 34., 35., 36. eta 37. artikuluetan.

III. Tituluan, Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola, I. kapitulua, Organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipena, 38. eta 39. artikuluetan. II. kapitulua, Finantza-kontrola, 40. eta 41. artikuluetan.

IV. titulua, Arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua, Arau-hausteak, 42. artikuluan. II. kapitulua, Zehapen araubidea, 43., 44., 45. eta 46. artikuluetan.

**11. Dirulaguntzaren publizitatea**

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespenaren hasieratik eman ere.

Ahozko zein idatzizko publizitatean adieraziko da Nafarroako Gobernuak hartu duela parte Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bidez. Aipamen hori eginen da Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru

deberá producirse en el plazo máximo de un mes desde la solicitud.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente.

Sin perjuicio de las eventuales consecuencias sancionadoras que se pudieran derivar del incumplimiento de las obligaciones de información por la entidad beneficiaria, este incumplimiento impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral de Subvenciones.

**10. Reintegro de subvenciones y procedimiento sancionador**

En relación con el seguimiento, la devolución y el procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, y en concreto a lo establecido:

En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.

En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.

En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

**11. Publicidad de la subvención.**

La entidad beneficiaria dará la debida publicidad a la subvención recibida desde el inicio de la aprobación de la subvención.

Dekretuaren jarraibideekin bat, eta jarduerak irauten duen epe osoan mantenduko da.

**12. Dirulaguntzaren bateragarritasuna.**

Dirulaguntza hau bateragarria da xede bererako jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Halakorik eskuratzen bada, Euskarabideari esan beharko zaio, egoera hori jakin bezain laster eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den justifikatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

En cada publicidad tanto oral como escrita se recogerá la participación del Gobierno de Navarra a través de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se exigirá de acuerdo con las directrices del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero por el que se regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el periodo de difusión de la actividad.

**12. Compatibilidad de la subvención**.

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean

Nafar Gobernuko kontseilaria

OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P

Firmado digitalmente por OLLO HUALDE ANA ISABEL - DNI 18205106P
Fecha: 2024.05.14 14:28:37 +02'00'

Ana Ollo Hualde

Pamplona a fecha de la firma digital

Soziolinguistika Klusterraren zuzendaria /
El director de Soziolinguistika Klusterra

15374197P IMANOL LARREA (R: G20843264)

Imanol Larrea Mendizabal

**II. eranskina / Anexo II**

**2024KO AURREKONTUA / PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2024**

| 2024ko PROIEKTUAK | GUZTIRA | % ... |
|---|---|---|
| Proiektua: Euskara kirolkide | | |

| | | |
|---|---|---|
| Gastuen aurrekontua:<br>Langile gastuak (soldatak, Gizarte Segurantzakoak, beste gastu sozial batzuk).<br>Batzorde Zientifikoa | 10.500 €<br>9.000 €<br>1.500 € | % 42 |
| Proiektua: ALDAHITZ ikerketa proiektua<br>Gastuen aurrekontua:<br>Langile gastuak (soldatak, Gizarte Segurantzakoak, beste gastu sozial batzuk).<br>Proiektuaren zuzendaria eta aholkularitza teknikoa | 14.500 €<br>12.500 €<br>2.000 € | % 58 |

| | | |
|---|---|---|
| GUZTIRA 2024 | 25.000 € | % 100 |

| Proyectos | TOTAL | % |
|---|---|---|
| Proyecto: Euskara Kirolkide<br>Presupuesto de gastos:<br>Gastos de personal (sueldos, Seguridad Social, otros gastos sociales)<br>Comisión Científica | 10.500 €<br>9.000 €<br>1.500 € | 42 % |
| Proyecto: ALDAHITZ proyecto de investigación<br>Presupuesto de gastos:<br>Gastos de personal (sueldos, Seguridad Social, otros gastos sociales)<br>Director del proyecto y asesoría técnica | 14.500 €<br>12.500 €<br>2.000 € | 58 % |
| TOTAL 2024 | 25.000 € | 100 % |

## III. eranskina / Anexo III

Gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena (PDF).

Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena (PDF).

Karguen ordainsariei buruzko adierazpena (PDF).

Declaración sobre la obligación de transparencia (PDF).

Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación (PDF).

Declaración sobre las retribuciones de los cargos (PDF).